

DONOSTIYAKO GAZTEAK,
Erregeen gurtea edo adoraziyoa, beren egunaren bezpera
gabean, 1829-garren urtean.

MARCHA.

*Humildes criados, leales, gratos
 Errege jaun irurenak,
 Há trece dias que caminamos
 Oriyentetik Belena:
 Al fin llegamos de gozo llenos
 Zoriyon leku onetan,
 Y nos hallamos postrados todos
 Jaungoikoaren oñetan.*

*Le adoramos y le rogamos
 Arren gaitzala urriki,
 Le alabamos y le pedimos
 Barkaziyoa umilki:
 Nada ofrecemos, pues que sabemos
 Bera dala egillea
 De cielos, tierra, ángeles, hombres,
 Dan guztiyaren jabea.*

OTSASTECHOA.

Gure Jesus maitea
 Jayo dan orduban,
 Izar bat agertu da
 Berriya Zeruban:
 Guztiya da argiya
 Bere inguruan,
 Argiya begiyetan,
 Argiya zentzuban.

Argi onen argiyan
 Argi degu ikusi
 Zer modutan aurrera
 Bear degun bizi:
 Lege berriya argi
 Digu erakutsi,
 Ta Jaunaren graziyan
 Ipiñiyarazi.

Miragarrizko argi
 Ta graziyarekin,
 Bereala diyogu
 Bideari ekiñ:
 Gu izarrarekin ta
 Izarra gurekin,
 Jerusaleneraño
 Beti alkarrekin.

Erri sonatu artan
 Geranian sartu,
 Eziñ izan ditugu
 Begiyak argitu:
 Zeren gure izarra
 Zaigun ezkutatu,
 Eta illundurikan
 Geraden arkitu.

Erodesi aditu ta Naigabez beterik, Aruntza biyurtzeko EZ degu asmorik: Gaiztotasun arrena Guk ezaguturik, Bere aurrera joana Gaude damuturik.	{	Ona guk nai genduben Belengo erriya, Ona zoriyoneko Portale azpiya: Ona billatzen degun Aur jayo berriya, Ona emen Zeruba Lurrera jechiya.
Gero geradenian Andik ateratu, Gure zoriyon, poza Laster da berritu, Gure izar argiya Da berriz agertu, Oneraño berari Diyogu jarraitu.		Graziyaz ta doayez Beterik beingoan, Ama maite Mariya Ona non dagoan Bere Seme ederra Arturik besoan, Ona Aita-ordeko Joseren ondoan.

EUSKARICHOA.

Kristabak, berri onak,
Doaya ta poza,
Atsegin zorionez
Naikeran bakoitza:
Esker on aukeretan
Beterik biotza,
Zelebratu dezagun
Jesusen jayotza.

ZORTZIKOAN ADORAZIYOA.

Aurcho jayo berriya, Zeruko lorea, Zure oñetan dago Melchor erregea: Eman dizu biotza, Eskaintzen urea, Ez du bererik ezer, Guztiya zurea.	{	Jesus, zure aurrean Da Gaspar arkitzen, Zaitu adoratzen ta Zaitu alabatzen: Eskaintzen inzensuba, Biyotza ematen, Barkaziyoa eta Graziya eskatzen.

Mesias egiyazko	{	Ona Jesus, gure Jaun
Jabe on bakarra;		Zeruko aundiya,
Jesus Zerubetatik		Emen zure oñetan
Jachitako aurra;		Auspez ipiñiya,
Baltasarren eskutik		Gizonaren lurreko
Ar-ezazu mirra,		Aginte guztiya,
Eta indazu arren		Galdez barkaziyoa,
Zure on eskerra.		Eskatzen graziya.

EUSKARICHOA.

Atozte ikustera,
 Atozte jendeak,
 Jesusaren oñetan
 Iru Erregeak:
 Emen berdintzen dira
 Aberats, pobreak,
 Berdiñak badirade
 Gure birtuteak.

JOSÉ VICENTE DE ECHEGARAY.

